

13. linea Basilique de St. Denis

Ion Orzaiz Galarza



Segizioa osatzen duten hogeit hamar pertsona metroan sartu dira, estazioko eskaileran behera, beltzez jantzita denak, Bruno aurrean doa, familiako gazteena izaki. Portzelanazkoa dirudien potetxoa eskuartean darama. Alde batera eta bestera begiratzen du, zurrun eta serio demonio, masailak lotsaz gorrituta. Osaba Philippe ez zuen ongi ezagutzen. Eguberrietan 50 euro ematen zizkion bibotodun izerditsua besterik ez zen. Hil zenean, kosta egin zitzaion bere sentimentuen artean ezaxola ez zen beste ezer topatzea. Orain bai, ordea. Orain sentimentuak borborka ari zaizkio, gorputzeko poro guztietatik atera nahian: gorrotoa, amorrua, lotsa... Bere baitarako, mila alditan madarikatu du Osaba Philippe eta bere testamentu zikina.


Philippe metroko gidaria izan zen 30 urte luzez. Eta jakina, hiltzean, bere errautsak metroaren errailetara bota zitaten eskatu zuen. Zurian beltz jarri zuen. Metroko zuzendaritzaren baimen berezia ere lortu zuen horretarako. Bestalde, Philippek ez zuen seme-alabarik, eta anai-arrebeekin ere ez zen sobera ongi kon-

pontzen. Bakardadea maite zuten. Horregatik egokitu zitzaion Bruno ilbari errautsak potetxoan eramatea.

St. Denis basilikako estaziara jaistean, bidaiari askok harri eta zur begiratu diote beltzez jantzitako segizioari. Batzuek barre txikiak egiten dituzte ahapeka, baten batek aitaren egin du, eta gehientsuenak estazioetik inhesi atera dira, nahiago baitute bidetarekin bagoi berean sartzea baino.

Philliperen senide eta lagunak trenbidearen ertzerira iritsi dira eta zirkuluerdi bat osatu dute. Don Nicolas apaiza Brunoren aldamenean jarri da, eskua mutilaren sorbaldan bermatua. Ez du mikrofonorik, baina errezuari ekin dionean, bere ahotsak burrunba egin du ganga itxurako estazio ilunean. «Jauna, eraman ezazu zenuetako erresumara zure semearen arima. Denok bezala, Philippe ere bekataria zen, baina baita gizon zintzoa ere...». Ai, ama. Mundu gutzia begira, pentsatu du Brunok.

Apaizak aurrera darrai: «Philippe ez zen mezarara joaten, eta bere hiletan ez zuten fede



kontuez hitz egiterik nahi. Hori utzi zuen idatzia bere testamentuan. Hala ere, denok dakigu, bere bihotzaren barrenean, Philippe kristaua zela, gu guztiok bezala, eta orain Jaungoiko Ahalguztidunaren aldamenean dagoela, bere senide eta lagun preziatuiei begira, irribarreitsu. Hemendik aurrera, gu guztiok baitan egonen da betiko». Brunori iruditu zaien Don Nicolas aprobetxategi bat dela, osaba Phillippek ezin baitu opaizak dioena gezurtatu. Jada ez. Bizirik balego, Don Nicolas paparretik heldu eta lepagora kenduko lioke, haserre bizian. Bruno hasia da osaba apur bat gehiago estimatzen.

Otoitzaldiaren ostean, apaizak esan du: «Hautsa zara, eta hautsera itzuliko zara», eta bertaratutako guztiak Brunori so gelditu dira. Honek zer egin jakin ez.

Don Nicolasek ukalditxoa eman dio, eta begiekin portzelanazko potetxoa seinatu.

Errautsak trenbidera botatzen hasi eta 13. lineako trenea heldu da bat-batean

Errautsak trenbidera botatzeko ordua dela.

Urduari, Bruno ontzia zabaltzen saiatu da, baina eskuak izerdi patsetan ditu, eta tapak irrist egiten dio behin eta berriz. Apaizak zakarki kendu dio potea esku artefik, eta plop! mutu batekin zabaldu. «Tira, amaitu dezagun behingoz», esan du ahapeka. Errautsak trenbidera botatzen hasi eta 13. lineako trenea heldu da bat-batean. Metroaren haize ufadaren eraginez, errautsak estazio osoan barreiatu dira. Apaizaren sotanan bereziki. Beltza baino, gris kolorekoa dirudi orain.

Kopetilun, portzelanazko potetxoa itxi eta hitz erdirik esan gabe itzuli dira denak, estazioko eskaileran gora. Bruno segizioaren atzealdean doa orain, irribarreitsu. Zera bururatu zaien, finean, Don Nicolasek arrazoi zuela, osaba Phillippe guztiok baitan dagoela esan duenean. Apaizaren baitan behintzat bai.

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

Tel. 943 55 58 46 · Mugik. 616 287 867

Ixabel Santa Cruz Zerain Larre-Gain baserria · Ereñozu - Hernani